



“Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?”, horixe da Andoaindarrei datoren azaroaren 5ean egingo zaien galdera

2017ko urriaren 6a, 538 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

HERRI GALDEKETA AZAROAREN 5EAN

Pausoka eguna datorren urriaren 14an, Urnietan

Ospakizunaren beroketa ariketa modura, urriaren 7tik 14ra hainbat lasterkarik Gipuzkoa korrika zeharkatuko dute.

Behar bereziak dituzten haurren **Pausoka** elkarteak urteko festa ospatuko du Egape ikastolako jolastoki estalian, datorren urriaren 14an. Urnietan bertan sortu zen Pausoka, **Maria Lesaka**ren eskutik, Markel bere semearen egoera hobetzeko terapia faltaz ohartuta. Urteotan elkarteak hazkunde handia izan du eta dagoeneko terapiak eskaintzen dizkiote Gipuzkoa osoko ehundik gora familiei, Hernanin eta Urnietan dituzten egoitzatan.

Aurtengo jaiak berrikuntza dakar. Aurreko aste osoan Pausokak Gipuzkoa lasterka zeharkatuko du, herriz herri elkartearen eta festaren berri emanez.



Prensaurrekoan Urnietako eta Hernaniko alkateek parte hartu zuten, eta baita Porrotx pailazoak ere, Pausoka elkarteari laguntza eta elkartasuna eskainiz. Argazkian daude, Pausokako kide eta laguntzaileekin batera.

URRIAK 14, LARUNBATA

11:00 Jaiaren hasiera.
11:30 Tailerrak.
14:00 Bazkaria.
16:30 Ikuskizunak.
18:30 Porrotx.

HERRI BAZKARIA, TXARTELAK SALGAI

Paella jatearen prezioa 5 eurokoa izango da. Ostegunean, ostiralean eta datorren asteeko astelehen eta asteazkenean egoi-

tzan bertan eros daitezke sarreak, 17:00etatik 19:00etara. Pausokaren egoitza Idiazabal kaleko 13. zenbakian dago. Azken txartelak egun berean jarriko dira salgai.

Gaztañaga irabazle Euskal Herriko sagardo txapelketan



Gaztañaga sagardotegia Euskal Herriko sagardo txapelketan nagusitu zen, Azpeitian jokatu zen finalean.

[ANDOAIN, 4. ORR.]

‘Modan da Euskara’ zikloa



Aste osoan zehar tailerrak eta hitzaldiak izan eta gero, astebururako ekitaldi gehiago iragarrita daude.

[AGENDA, 8. ORR.]

Zinema saioak Basteron

Zine emankizunen denboraldia abiatu da Andoainen. Asteburu honetan “Operacion Concha” umorezko filma eskainiko dute Basteron. Urriaren 21etik 23ra, berri, Handia filmaren estreinaldia.

[AGENDA, 8. ORR.]

Andoaingo ondarea ezagutzeko ibilaldia, igande honetan

Andoaingo Udalak, Larramendi Kultur Bazkunaren laguntzaz, bisita gidatua antolatu du igande honetarako.

Jardunaldia Gipuzkoako Diputazioak Ondarearen Europako Jardunaldien baitan kokatu dute. Baserri giroko paisaiatik hirigintza berrira emandako urratsak aztergai izango dira, goiz osoko ibilbidean.

Ibiltariak goizeko 09:30ean abiatuko dira Buruntzako San Martin aztarnategitik, Serorategi eta Elizaldi Txiki etxeen ondoan dagoena; Gaztañaga sagardotegia baino zertxobait



Igande honetan goizeko 09:30ean abiatuko da ibilaldia, Buruntzako San Martin aztarnategitik. Irudian, iazko irteera.

goraxeago, eta Santa Krutz elizan amaituko da bidea. Ibilbidean zehar honako tokiak nabarmenduko dituzte: Andoaingo elizaren aztarnategia,

Goikoplaza eta udaletxearen sorrera, Kale Nagusiko Enekorrena etxea edota Santa Krutz eliza.

Geldiunetan, Larramendi

XOXOKAKO JAIK

Ekitaldiz beteriko asteburua Xoxokako auzoan

Hasi dira Xoxokako jaiak Goiburu auzoan, Sanmielak bukatu eta biharamunean. Astelehenean eta asteartean lehen txanpa, jarduera ugarirekin: herri kirolak, bazkari eta afariak, bertsolariak...

Astebururako hitzordu gehiago deitu dituzte: Bertso afaria, sega apustua, haurrei begirako ekitaldia. Igande arratsalden amaituko dira jaiak, sagardo dastaketarekin.



Indar handia izaten dute herri kirolek Xoxokako jaietan. Astelehenean, Telleria eta Mugertza anaiek elkarren aurka jardun zuten, aizkoran eta harria jasotzen.



Jantokira auzotar ugari hurbildu zen, astelehenean.

Herri kirolak eta bertso bazkaria, horietan izan ziren Goiburuko auzotarren jaien hasierako osagaiak. Tradizio handiko hitzorduak dira, egitarauan urtez urte hortxe dirautenak. Eguerdian euripean egin zen herri kirol desafioa. Bazkaria eta bazkalostea, ordea, gozo igaro zen babesean. Bertara hurbildu zirenek astelehenean arratsalde dibertigarria igaro zuten. Algara sano-sanoari ezin eutsirik egon ziren maiz, bertso ironiko eta adar jotzaileekin. Egañaren urtebetetzea eta bere gurasoak, buru soilen abantailak, bazkarian ziren adineko emakume apainak eta Urnietako ileapaintzaileak, jai batzordeko kideak... Inor gutxi libratu zen. Aiurri.eus gunean bertso ugari entzungai daude. Askoren artean, horra bertso sorta bat:

Egaña:

Gaia aldatuz orain bertara mostradoretikan ti-ta, gure aurrean antolatzaile gazte kuadrila polita. Halere aurten hartua diet aprobetxategi pinta, zeinen dotore etorri diren den denak horiz jantzita

Arzallus:

Len esan dizut urte batzutan ibili dira hemen jiran, komisioko kamiseta hori ez zen aldatu segidan. Naranja edo larroxen batzuk ibiltzen ziren dilindan, orain ez dakit aldatu edo ajatzen hasiak diran.



Egaña, Arzallus eta Elustondo anai-arrebak Besabi jatetxean.

Egaña:

Izan liteke aldatu edo ajatu ere laguna, eta begira jarri ezkerro begiek a ze jarduna: Gure aurrean beltzez daukagun halako mutil txukuna, hau da nikien aldaketana batere jakin ez zuna.

Arzallus:

Ni ere berai begira nengon eta jardun eta jardun, nola nikian diseinuak azterketa bat behar dun. Egia esan harritu naiz ni nola hau dedan ezagun: Dantzan sekulan ez det ikusi kamixetan aina lagun.

Egaña:

Gure aurreko pertsonajeari beharko diogu kanta, niki beltzakin gaur eman digu mutil berezian planta. Amai galdetu gaur ze nikikin, amak kokotean kanka! Gaurkoan beltza eraman zazu zikin estalia da-ta!

Arzallus:

Itxuraren eza, ba, izango zan egunsentiko sarrera, amak lagundu eta horrela bere plaza samurrera. Zikin estali izan da beltza, baina erortzean lurrera, ze inporta du bihar goizean buelta eman eta aurrera.

XOXOKAKO JAIK



Asteartean, Joxe Mari Elolaren idiek irabazi zuten Xoxokako idi-asto proban, 55 plaza eginda; Eneko Seinen astoek, berriz, 49 plaza egin zituzten. Argazkian Jokin Egia, Eneko Sein, Aitor Matxain eta Joxe Mari Elola, demako idi irabazleekin.

Egitaraua

Urnieta. Xoxoka

■ Urriak 6, ostirala:

18:00 Toka txapelketa.

20:30 Bertso afaria plazan: Alaia Martin eta Sebastian Lizaso.

01:00 Emengattun.

■ Urriak 7, larunbata:

11:00 Hamaiketako eskolan. Haritz Mujika eta Mikel Artola.

11:00 Puzgarriak haurrentzat.

12:00 Sega apustua: Julen Gabirondo eta Jon Otegi, Suharri Irazustabarrena eta Iñigo Merkaderren aurka. Gaztetxoeren arteko sega erakustaldia.

16:00 Mus Azkarra. Izen ematea, 15:00etan hasita.

16:00 Puzgarriak.

17:00 Gorriti eta bere animaliak. Txokolate jatea.

20:30 Betizu jatea plazan.

01:00 Gaupasa: Fan&Go.

■ Urriak 8, igandea:

12:30 Meza. Egape DT.

17:30 Auzokideen arteko herri kirol lehiaketa.

18:00 Sagardo dastaketa: Oia-ume, Setien, Eula, Elutxeta, Otsua-enea eta Elorrabi.

20:30 Festen amaiera.

[Jaien jarraipena: Aiurri.eus]



Herri antzerkian parte hartu zuten auzoko gazteak. Badute meritua, gero!



Herri antzerkian parte hartu zuten auzoko gazteak. Badute meritua urtero atonduz antzerkia, eta ikusleak barrez jarriaz.

Edukiontzia irekitzeko sistema elektronikoa



Txartelak eskuratzeko azken aukera Lekaion dago, datorren urriaren 14ra arte.

Zaborren bilketa sistema berria urriaren 16an jarriko da abian, Urnietan. Aurrerantzean, organikoaren eta errefusaren edukiontzia irekitzeko sistema elektronikoa erabiliko da eta horiek ireki ahal izateko Udalak eskaintzen duen txartela erabili beharko da, derrigorrez.

TXARTELA ESKURATZEKO AZKEN AUKERA LEKAION

Lekaion, datorren urriaren 14ra bitarte. Txartelak hamasei urtetik gorakoek jaso ahal izango dituzte.

Astelehenetik ostiralera:

10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Larunbata:

10:00-14:00.

Buruntzaldeko ibilbideak

Hamargarren ediziora heldu da Buruntzaldeko ibilbideen eguna. Igande goizez ospatuko da eta beste behin ere, oinez edo bizikletaz, Buruntzal-

deak dituen txoko ederrez gozatzeko aukera izango da.

Orduetgia: 08:30-14:00.

Informazio osagarria:

Buruntzaldea.eus

Oroimena Bizigune tailerra 18-25 urteko gazteentzat

‘Oroimena Bizigune’ eskualdeko iragan bortitzaren oroimena eta ikus-entzunezkoak sortzeko tailer dokumentala da. Tailerra egiteko 18-25 urteko Urnietako, Andoaino, Astigarrako, Hernaniko Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gazteak behar dira.

Parte hartzaileek herritarren elkarrizketak grabatzen lagunduko dute iragana ezagutzeko eta bakearen kultura zabaltzeko.

Aurkezpen ekitaldia urriaren 5ean izango da Hernaniko Biteri kultur etxean, arratsadeko 19:00etan hasita.

“Sherezade” antzezlanaren entsegu irekia, Saroben



“Sherezade y las capas de la cebolla” antzezlanaren pasarte bat.

Vaiven konpainia “Sherezade y las capas de la cebolla” antzezlanaren entsegu irekia egingo

dute arratsaldeko 19:30ean, ostiral honetan. Saioa eta gero solasaldia egingo dute. Sarrobera doakoa da.

Sarek antolaturiko jaialdia

Presoen eskubideen aldeko Sare herri ekimenak hitzordu ezberdinak antolatuko ditu, larunbat honetan Gaztetxean. Egitaraua:

■ Urriak 7, larunbata

18:00 Porrotx (3 euro).

19:00 Pintxo-pote berezia.

23:00 Sutagar (8 euro).

Sarrerak salgai:

Ernaitza, Xauxar.

01:00 DJ Mai.



Eskualde mailako garraioa

Foru Aldundiak Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak egiten dituen bus zerbitzuari buruzko aurreproiektua aurkeztu du. Antza, aurreproiektuak murrizketa garrantzitsuak aurreikusten ditu eskualde horietako udalerrien arteko garraio publikoan. Hori dela eta, Andoaingo, Hernaniko eta Usurbilgo Udalek egitasmoa geratu eta inplikaturako eragileekin hitz egiteko eskaera erregistratuko dute Gipuzkoako Foru Aldundian.

ko udalerrien arteko garraio publikoan. Hori dela eta, Andoaingo, Hernaniko eta Usurbilgo Udalek egitasmoa geratu eta inplikaturako eragileekin hitz egiteko eskaera erregistratuko dute Gipuzkoako Foru Aldundian.

Mintzalagunak eta Bidaide, euskaraz trebatzeko aukerak

Euskaraz trebatzeko aukerak ugari dago Andoainean. **Mintzalaguna**, esaterako, ahozko praktika areagotzeko ekimena da. AEK-k eta Udalak dagoeneko ikasturteko egitaraua osatu dute. Lehen hitzordua urriaren 27an izango da, bertso-afaria antolatuko baitute.

Bidaide ekimenak gozogintza tailerra antolatu du guraso eta haurrentzat.

Informazioa: 943 591 704.

Informazioa: 943 591 704.

Stop Kaleratzeak taldearen oharra andoaindarrei

Aiurri.eus webgunean Komunitatea atalean duten txokoan adierazi bezala, "2002 eta 2013 urteen artean Andoain Kutzabank, Santander, Laboral Kutxa edo Caja Rural ez den banketxeren batekin hipoteka mailegua sinatu bazenuen, lurzoru klausula izateko aukera asko dituzu. Adibidez, Zumea

plazan bizi bazara eta Sabadell bankuarekin mailegu bat baduzu, gurekin hitz egin, ziurrenik lurzoru klausula izango duzu eta. Whatsapp mezua 660 74 58 24 telefono zenbakira bidali, eta zure kasua errebisatzeko hitzordua adostuko dugu. Jarriri ditugun kexen %99ak itzulketan amaitu dira".

Andoaindarrak nagusi Euskal Herriko sagardogileen txapelketan

Sagardozaleen katedra Gaztañagaren alde dago



Gaztañaga, Aburuza eta Irigoien-Herrero sagardogileak sari-banaketa ekitaldian.

Euskal Herriko sagardogileen elkarteko txapelketa irabazi du Andoaingo Gaztañaga sagardotegiak, joan zen larunbatean Azpeitiko finalean garaile izan eta gero. Lehiaketa honetan epaimahaikideak sagardogileak dira, antolaketak adierazi bezala: "Txapelketa herrikoia desberdina da: afaltzera eseri eta ateratzen dituzten sagardo desberdinak dastatu eta nork bere gustu eta iritziaren arabera nahi duen puntuazioa ematen dio, bostetik hamarrera. Lehiaketak herritar askoren iritzia jakiteko aukera ematen du, eta hori oso interesgarria da sagardogileentzat".

Finala Azpeitiko Berdura plazan izan zen, Basatxerri eta Lurlan elkartearen eskutik.

Gipuzkoako sagardogileen elkarteak txapelketa hainbat erakunderekin elkarlanean antolatu du. Besteak beste, Eus-



Lehiaketa honetan epaimahaikideak sagardogileak dira.

ko Jaurlaritza, HAZI fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ordizia, Andoain, Zarautz eta Azpeitiako Udalak.

Zer esanik ez Gaztañagako arduradunak lortutako txapelarekin pozarren zirela.

SAILKAPENA

Guztira Euskal Herriko 41 sagardotegilek hartu du parte Euskal Herriko txapelketaren hirugarren edizioan. Final handiaren aurretik lau finalaurreko egin dira Ordizian, Andoainean, Zarautzen eta Oiartzunen.

SAILKAPENA

1. Gaztañaga.
2. Aburuza.
3. Irigoien-Herrero.

GAINONTZEKO FINALISTAK

Orden alfabetikoan:

1. Akarregi.
2. Larregain.
3. Lizeaga.
4. Oiarbide.
5. Ola.
6. Rezola.
7. Rufino.
8. Setien.
9. Urdaira.

ANDOAINGO CARITAS ELKARTEAREN DEIALDIA



Aurtengo ikasturterako lan egiteko prest agertu diren zenbait bolondres: Zutik, Rosa Vera, Bea Amondarain, Dadai Sabout, Unai Iriondo, Angelines Lopez eta Iker Iriondo. Eserita: Paco Martinez, Honorio Martin, Pedro Martinez, Coro Agirre, Elias Diaz eta Emil Gradinar.

Andoaingo Caritas elkarteak boluntarioak behar ditu hainbat zereginetan aritzeko, ikasturte hasita dagoenean. Besteak beste, Ama Kandidako biltegiaren aritzeko, edota 6-13 urte bitarteko haurrei eskolak emateko laguntzaileak behar dituzte.

ESKOLAK ARRATSALDEZ

Eskolaz kanpoko ekintza gisa hartzen da Caritasek ematen duen eskola, laguntza modura. Urrian jarriko da abian, eta astean lau egunetan irekiko dute, 16:45etik 18:00etarako ordutegiarekin. Ikasgela bakoitzak lau ikasle hartuko ditu, gehienez. Jada 30 ikasle baino gehiagok eman du izena.

BILTEGIA

Etxeko altzariak eta tresnak, arropak, jostailuak eta abarrak jasotzeko zerbitzua, berriz, elkarteak Ama Kandida etorbidean daukan egoitzan kokatzen da, esan bezala. Laguntzaileek bertan uzten duten tresneria jasotzea eta antolatzeko izango da egin beharko den lana.

HARREMANETARAKO

Caritaseko kideekin harremanetan jartzeko, Zumea 3n daukan harrera bulegora jo behar da. Astelehen, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

caritasandoain@yahoo.com

688 825 445

Urnieta ospakizun betean



2017, urria

Sanmielako jarraipena aiurri.eus gunean

Maita hondakin irrintzi lehiaketa
2017-10-10

Datorren urtereko urte Mielak
2017-10-10

Tokuta txapelketa
2017-10-10

Ekialdean Urnieta eta Ardoiako gasteak
2017-10-10

Aurrera Gure Arretan taldearen saila
2017-10-10

Bakailan lehiaketa
2017-10-10

**ARGAZKIAK
BIDEOAK
EGUNEZ EGUN**

Txikienak eta odol-emaileak gogoan



Azken urtean jailetako haurtxoei jaietako zapia ipini zieten Alkate txikiak, eta Udal ordezkari ezberdinek.



Eñaut Egaña eta Eider Garcia Marizulotik iritsi berria zen Mielarekin batera.



Aitzol Otegi eta Ane Pagola dantzariak, haur jaiaberrei zapia jartzeko ekitaldian.



Plaza jendez bete ohi da jaien hasieran. Aurtengoan, ordea, aurrekoetan baino jende gehiago zegoen.



Manoli Sorondo eta Izaskun Miner pregoilari aritu ziren, Odol-emaileen elkarteko kideen izenean.



Jaien hasieran Poxta Zaharrek antolatutako areto futboloko finala jokatu zen. 4-4ko berdinketa nagusi zela, Ugaldek eta Purinak gol bana sartu zuten. Emaitza: 'Murdocken semeak' 6-4 'Ordenadoreak eta'.



Buruntzantzian taldekoen parte hartzea ohikoa da San Juan jaien hasieran. Irudian, Sorginekin kalejiran.



Jamaikar kutsuko ospakizun jendetsua

TXOSNAGUNEA JAIEN BILGUNE NAGUSI DA SANMIELETAN. OSTEGUNEAN, ESATERAKO, EHUNKA HERRIKIDEK PARTE HARTU ZUEN PATATA TORTILLA TXAPELKETAN. HAIETAKO ASKO ETA ASKAO JAMAIKAR MODURA MOZORROTUTA AGERTU ZEN.



Intza Cabrera, Uxue Manterola eta Garazi Usabiaga patata tortilla lehiaketan, txosnagunean lanean. Koadrila ezberdinak jamaikar kutsuko jantziekin hurbildu ziren afarira.



Sorginen agerpena eta bakailao lehiaketa



Sorginek agerpena egin zuten San Miguel egunean, arratsaldeko 19:00etan bi dantza ezberdin eskainiz.



Urnietako bakailao txapelketaren lehen edizioa antolatu zuen Aballarri guraso elkarteak. Lehen edizioan sei partaide izan ziren. Festazaleek lehiakideek egindakoa dastatu ahal izan zuten, ekitaldiaren amaieran.



San Miguel eguneko ospakizunak plazan

JAIETAKO EGUN HANDIAN, OSPAKIZUN UGARI EGIN ZEN URNIETAN. JAI EGITARAUAN AGERTZEN EZ BAZEN ERE, SORGINEK AGERPENA EGIN ZUTEN SAN JUAN PLAZAN. BI DANTZA ESKAINI ZITUZTEN, DJ MAKALAREN SAIOAREN ATARIAN.



Txanbolinen emanaldi berezia San Miguel egunean, ohi bezala, dantzari gazteek lagunduta.



Urnietako Udalak San Miguel egunean egiten duen omenaldian, gogoan hartu zituen Adarra-Usabelartza elkarteko kideak. Aitortza eta plaka jasotzeaz gain, omenaldia dantzarekin eta bertso saioarekin osatu zen. Argazkian, Juan Joxe Jauregi, Joxe Ubillos, Xabier Usarralde, Juan Usarralde eta Joxe Mari Gorostidi ganaduzaleak. Olatz Gorroño Aurrera Gure Ametsa taldeko dantzariak dantzatu zien aurrekua.



San Miguel eguneko meza eta gero, urnietar asko ermitara gerturatu zen bedeinkazioa jasotzera.

Xabier Usarralde eta **Joxe Ubillos** elkarteko kideak eseri ziren Udal batzar aretoko mahaian, **Mikel Pagola** alkatearen eta alderdietako ordezkariekin batera. Tradizioari jarraiki, **Olatz Gorroño** dantzariak aureskua dantzatu zien guztiei, **Txanbolin** elkarteko txistulariek lagunduta. Ondoren, **Unai Agirrek** lau bertso eskaini zizkien Andoain eta Urnieta-ko ganaduzaleei, arrazoi politikak eskainiz.

Lendabiziko ohitura da ta, ongietorri daneri. Gaur ordezkari batzuk ditugu, badu nahiko kategori. Adarraldeko ganadu zale, kargu pixkat bada hori. Xabier eta Joxe hor daude, txalo bero bat biori. Ganadua ta aberia da eta ardia hurrena, menderik mende gure menditan hala ibili da dena. Bihotz bihotzez aitortu nahi det: lan ederra da zuena, gaur bizi geran garai hauetan gutxi eskertzen duena.

Lau hankakoak beti lanian nahiz eguzki nahiz ilargi. Noizean behinka nere mendian begira egoten naiz adi, eta kalean bizi dan askok gauzak ez ditu hain argi. Pentsatzen dute gure mendiak berez daudela hain garbi. Honenbestean eskerrik asko, ez det beste ezer ia. Udaletxeko oroimen honek badu bere alderdia. Bide beretik lotu ditzagun garai zarra ta berria, zintzarri hotsa bukatzen bada, akabo Euskal Herria!

Ekitaldiz beteriko larunbata



Larunbat arratsaldea ekitaldiz beterikoa izan zen San Juan plazan, eta herrigunean.



Wu tao taldeak parrillan prestatuturiko pintxoak eskaini zituen, lehen aldiz Urrietako jaietan.



Ingurutxoak Kontzejupean egin behar izan zuten, euria zela eta. Argazkian, Aurrera Gure Ametsa taldea.



KONTZEJUPEKOA

Irailaren 30eko finalen emaitzak:

Benjamin aurrekoak:

- Xabier Agirre 12
- Aitor Perurena 4

Benjaminak:

- Ekain Astiazaran 16
- Endika Sevilla 11

Alebinak:

- Unai Barberena 16
- Aimar Urra 9

Infantilak:

- Pedro Elozegi 16
- Julen Garayoa 4

Paleta, neskak:

- Itxasne Urruzola 22
- Eider Manterola 12

Larunbat goizean finalak jokatu ziren.



Perurekin GKE elkartearentzat izan da aurten txekor jatean bildutako dirua.



Gizon proba euripean burutu zuten San Juan plazaren atzealdeko probalekuan.



Egape ikastolako partaideak Haur mailako daborradan.



Presentacion de Maria Ikastetxeko partaideak haur danborradan.

Maila handiko irrintzi lehiaketa

IÑISTOR JAIA EKITALDIZ BETERIK IRITSI ZEN, URTERO: TOKA TXAPELKETA, HERRI BAZKARIA, URNIETAR PRESTU OMENALDIA, BERTSO SAIOA ETA IRRINTZI LEHIAKETA. IRRINTZI LEHIAKETA MAILA HANDIKOA IZAN ZEN, PARTAIDETZA HANDIAGOREKIN.



Ana Gabirondo (Urnieta), txapeldun-ordea.



Begoña Gonzalez (Lesaka), hirugarren.



Gurene Grande (Orozko).



Gotzon Bengoetxea (Orozko).



Eduardo Rodriguez (Urnieta).



Nerea Arriaga (Orio), aurtengo txapelduna.



Edna Roberta (Errenteria).



Toñi Jara (Hernani).



Ane Gallo (Bilbo).



Antonio Amondarain, Karlos Irastorza eta Imanol Iturbe Toka txapelketako lehen hiru sailkatuak.

Maria Arizmendi irrintzi lehiaketan maila handiko partaidetza izan zen, Euskal Herri osoko partaideekin. Aurreko urteetako maila hobetuta ere, Nerea Arriaga oriotarra izendatu zuen epaimahaia irabazle, beste behin.

SAILKAPENA:

1. Nerea Arriaga (Orio).
 2. Ana Gabirondo (Urnieta).
 3. Begoña Gonzalez (Lesaka).
- Gainerako partaideak:
Gotzon Bengoetxea (Orozko).
Ane Gallo (Bilbo).
Gurene Grande (Orozko).
Toñi Jara (Hernani).
Edna Roberta (Errenteria).
Eduardo Rodriguez (Urnieta).



Andoni Zumeta larrauldarra irabazle izan zen haur eta gazteen mailan.



Mikel Alonso urnietarrak herri barruko kriteriumean hartu zuen parte.



Puntuaketan Ander Amonarizek irabazi zuen, eskuinean lehena.

Datorren urtera arte, aio!

IGANDE GAUEAN URNIETAKO FESTAZALE UGARI, 'DATORREN URTERA ARTE AIO' PENTSAMENDUA BURUAN ZUELA OHERATU ZEN. BOST EGUNEZ JARRAIAN DOZENAKA HITZORDU BURUTU DA, UDALAK ETA HERRI ERAGILEEK ANTOLATURIKOAK.



Urnietar Prestu izendatu zituzten Egape ikastolako irakale aitzindariak, igande arratsaldeko omenaldian. Egape dantza taldeko hainbat kidek esker oneko agurra dantzatu zieten Urnietar Prestu ekitaldiko omenduei. Iñistorra elkarreak esker ona adierazi nahi die jaiari laguntzaile aritu diren eragile eta pertsona guztiei, bereziki, Kantoi, Bilkain eta Guria tabernei txartelen salmentan emandako laguntzagatik.



Igande iluntzeko dantzaldia, San Juan plazan.



Mielaren agurra, zezen suzkoa, dantzaldia..., gaztetxoek gogoko ekitaldiak igande iluntzean.



Miela irailaren 27an Marizulotik jaitzi zen, eta igande gauean berriro itzuli zen hara. Datorren urtera arte.



Zezen suzkoa gaztetxo askoren gustuko hitzordua. Jaiari amaiera ematen dio, azken trakarekin batera.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

HERRI GALDEKETA DATORREN AZAROAREN BOSTEAN

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?

“Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?”, horixe da Andoain Esan taldeak “Galdeketa Fest” jaialdian herritarrei aurkeztu zieten galdera. Irailaren 23an asanbladan adostu zuten,

eta astebetera jendaurrean aurkeztu zuten. Ekitaldi horretan bertan hasiera eman zioten kanpainari. Musika nagusitu zen ekitaldian, Kataluniatik albiste ugari iristen ari ziren bitartean.



Dozenaka lagun hurbildu zen Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalira. Bertan egin zuten “Galdeketa Fest” ospakizuna. Irudiak eta bideoak ikusgai daude www.aiurri.eus webgunean.

Joan zen igandean Katalunian erreferenduma istilu artean igarotzen ari zen, Espainiako indar armatuen eraginez. Eguerdiko hamabietan Andoain Esan herri ekimenak “Galdeketa Fest” antolatu zuen, ororen gainera, datorren azaroaren 5eko galdeketa aldeko kanpainari hasiera emateko. Ekitaldian bertan herritar bat baino gehiago esku-telefonoari begira zegoen, Katalunian zer gertatzen ari zen irakurriz. Katalunian bezala, Andoainek ere erabakitzeko eskubidearen alde egin nahi du.

Adostutako galdera aurkezteaz gain, datorren azaroaren 5ean, botoa herriko hiru toki ezberdinetan eman ahal izango dela aurreratu zuten. Horrez gain, aurreko egunetan alde aurretik bozka emateko aukera ere izango da.

Ekitaldia jendetsua izan zen, eta bertan L'estaca edota Gure Esku Dago kantuak entzun ahal izan ziren. Musikarekin, dantzarekin eta hamaiketakoarekin ospakizun ukitua eman zioten ekitaldiari. Hilabete eskas geratzen da herri galdeketa burutzeko.


KATALUNIAREKIN ELKARTASUNA


Igande gauean Euskal Herri osoan kazeroladak antolatu zituzten, Katalunian gertaerak salatu eta elkartasuna

adierazteko. Bilkura sare sozialen bitartez zabaldu zen, eta Zumea plazan ehundik gora lagun bildu zen.



Asteartean, elkarretaratze ezberdinak izan ziren. Eguerdian Udal langile eta ordezkariak elkarretaratu ziren.

Gauean, Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, kazerolada ibiltaria egin zuten Goikoplazatik Zumea plazara.



KIROL ALBISTEAK

Urnieta KE eskubaloia

Bederatzi talderekin abiatu da eskubaloi denboraldia Urnietan. Azpimarragarria da kopurua, eta baita emakumeen parte hartzea ere. Askotxo dira emakumezkoak; hainbeste, infantil mailan bi talde

arrituko direla. Kirol mailari dagokionez, itxaropenak senior mailan jarrita daude. Iazkoa oraindik ere gogoan dute urnietarrek, gizonzkoek igoerako ligaska zirrargarria jokatu baitzuten.

URNIETA BALERDI HARATEGIA | 2017-2018. denboraldia | Senior maila

Jokalariak:

Sergio Montes Guerra
Victor Rodriguez del Alamo
Gorka Vicente Martin
Xabat Salaberria Quirce
Erlaitz Arrieta Ansa
Iñaki Ibañez Etxeberria
Eneko Salaberria Gorosabel
John Sanchez Sanchez
Julen Garcia Mendoza
Beñat Senperena Arrona
Eneko Urruzola Carrera
Borja Rodriguez del Alamo
Egoitz Carracedo Lizeaga
Iñigo Perez Estevez

Prestatzaileak:

Gonzalo Brea Quintas
Gorka Urigoitia Iraola
Juan Mª Morales Aizpun



URNIETA LARRIALDIK FUNDAZIOA | 2017-2018. denboraldia | Senior maila

Jokalariak:

Leire Moreiro Soto
Garazi Ramos Santin
Ianire Senperena Arrona
Amaia Jauregi Etxezarreta
Irati Zinkunegi Ansa
Elixane Urkijo Alonso
Cristina Urdangarin Devesa
Maialen Beristain Mujika
Oihane Sánchez Irastorza
Zuriñe Cao Lazcoz
Amaya Gallego De Luis
Irati Gallardo Arrieta
Maialen Izagirre Goenaga
Uxue Sarasua Agirre

Prestatzaileak:

Victor Rodriguez Alamo
Andoni Ruiz Izagirre





KIROL ALBISTEAK

Mendi Tour Urnietan

Datorren urriaren 20an 2016ko Mendi Film ekitaldiko hiru pelikula ikusi ahal izango dira Saroben, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Udaletxearen ekimenez egingo da, albiste bikaina da mendizaleentzat; Urnieta munduko mendi pelikula onenen zirkuituan sartuko baitute lehen aldiz.

Mendi Film Festibalak hamar urte beteko dituen honetan, Mendi Film Festibaleko antolatzaileek sortutako Mendi Tour ekimena Urnietan izango da urriaren 20an, herriko Udaletxearekin elkarlanean. Hitzordua Saroben izanen da, iluntzeko 19:00etan hasita. Sarrera doakoa da, eta guztira, hiru pelikula ikusi ahal izango dituzte bertaraten direnek.

Aitor Elduaen Mendi Filmeko komunikazio arduradunak egingo ditu atariko lanak, pelikulen nondik norakoen xehetasunak eman, eta Mendi Tour ekimenarekin egiten duten lana azaltzeko. Mendi Film duela hamar urte sortu zela gogoratzen du: "Lehen lau urteak Gasteizen, eta azken seirak Bilbon, guztiak abenduan". Bertan erakusten ziren pelikula, Euskal Herrian barrena erakusteko ekimena duela zortzi urte hasi zen: "Tolosan, eta orduz geroztik Euskal Herri osoan aritu gara urtero pelikula onenen sariak irabazi dituztenak erakusten". Urte honetan 38 herritan arituko dira Euskal Herrian barrena, eta bertatik kanpo ere geroz eta sarriago: Burgos, Potes, Valentzia, Madril, Aran bailara, Luz Saint-Sauveur Frantzia...

Denetan harrera bikaina egin omen diete. Zergatia, honatx: "Aurren-aurren, etxetik bertatik bertara zirkuitu komertzialetan tokirik ez duten pelikula onak ikus ditzakezula. Alegia, edo Mendi Tour ekimenaren bidez ikusten dituzu, edo ez dituzu ikusten. Bigarren arrazoia, pelikulak kranpoiak eta pioletak baino askoz gauza gehiago erakusten dituztela, gero eta kalitate hobea dute. Euskal Herrian mendi zaletasun latza dago, baina pelikula zinema kontsumitzaile ere bagara". Pelikulen kalitateak ere, noski, zeri zuzena du harrera on horretan: "Aintzat hartu behar da Mendi Film Festibala primerako erakusleio bilakatu dela mendi zinema egiten duten eta



David Lama, Hansjorg Auer eta Alex Blumel alpinisten ibilerak pantailara eman dituzte 'Annapurna III - Unclimbed' izeneko filman.

diru asko inbertitzen duten proiektu eta ekoiztetxe aberatsentzat... Mendi zinematik jauzi kualitatibo ikaragarria eman du azken urteetan".

HIRU PELIKULA IKUSGAI

Mendi Tourrak hiru pelikula eskainiko ditu Urnietan. Hirurak bertsio originalean eskainiko dira, azpi idatziekin (erdaraz eta euskaraz). 'Annapurna III - Unclimbed' da lehen pelikula,

12 minutukoa (Austria). David Lama, Hansjorg Auer eta Alex Blumel alpinistek Annapurna III-ko hegoekialdeko ertzean, Nepalen egin zuten ahalgina du hizpide. Annapurna III egun alpinismoak daukan arronka handienetakoa da, eta alpinistek bertan jasan zuten nekea, antsietatea eta kalbariora ditu ardatz.

Bigarren pelikula ere laburra da, AEBetako: 'Boys in the

bugs', Eskaladako Film onenaren sariaren irabazlea izan zen iazko Mendi Film festibalean (18 minutu). Matt Segal eta Will Stanhope dira protagonistak. Hamarkada oso bat munduko arrakala zailenak eskalatzeko, Bugaboo mendietara joko dute mailaz kanpoko arrakala bat eskalatzeko, Kanadako British Columbia eskualdera. Han arrakala estuak topatuko dituzte, hatz puntak baino sartzen ez diren arrakalak. Haien bizitzak aldatuko dituen urteetako bilaketa epikoaren abiapuntua da kontakizuna.

Hirugarren pelikula Pavol Barabas eslovakiarraren 'Sloboda Pod Nakladom' filma da (Freedom under load, ingelesez). 2016ko ekitaldiko sari nagusia jaso zuen pelikula honek. 58 minutuko iraupena du, eta Tatra mendikateko zama-ketariaren azken belaunaldiaren jarduna du ardatz. Zergatik hautatu duten bizimodu hori, zergatik jarraitzen duten Europako azken mohikanoak izaten.

Etxekortia mendira irteera, urriaren 21ean

Zanpatuz mendi elkarrekin bere jarduerari berrekingo dio uda ostean. Mendi Tour-aren biharamunerako irteera antolatu du Zuberoara, Etxekortia mendira. Etxekortia Arbaileak mendiguneko tontor garaienetakoa da. Nahiko mendigune ezezaguna da, baina euskal Pirinioetako behatoki ederrenetakoa ere bada. Etxekortiak 1.194 metro ditu, eta bertatik Orhymendi, Auñamendi eta beste gertu-gertu ikusten dira, hatzekin ukitzeko moduan, eguraldia lagun bada.

Irteera eguneko da. Goizeko 07:00etan irtengo da autobusa Matxo tabernatik, eta Baxe Nafarroako Donaixti-lbarreraino joan, herri hartako Arla auzora, hain zuzen ere. Ibilaldia zailtasun ertainekoa da, joan-etorria 6-7 ordukoa baita, eta gainditu beharreko desnibel positiboa 1.000 metrotik gorakoa. Bidoize ibaia jaiotzen den kobatik



pasa ostean, gailurrera igo eta ibilbide zirkularra osatuko da, autobusera bueltatzeko. **Koldo Tapia** izango da irteerako arduraduna. Gazez irten, eta gazez bueltatu, itzulera 20:00ak alderako espero baita. Norberak bere bazkaria eraman beharko du motxillan, eta antolakuntzak neguko arropa eramatea gomendatzen

du, urri bukaeran 1.200 metrora hotz egin baitezake. Izena emateko epea urriaren 17an amaituko da. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, 15 euro. Zerrendak Ikasmin akademian, eta Xauxar eta Kantoitabernetan egongo da. Ordainketa izena emateko unean egin beharko da.

Futbol emaitzak

PREFERENTE MAILA

Hirugarren jardunaldia:

Urnieta 0-2 EAS08

Deusto 0-0 Euskalduna

Laugarren jardunaldia:

Billabona-Urnieta

Igandea, 17:00.

Euskalduna-Oiartzun

Larunbata, 17:30.

Sailkapena:

1. EAS08 9 puntu

3. Urnieta 6 puntu

6. Euskalduna 5 puntu

JUBENIL MAILAKO MUTILAK

Hirugarren jardunaldia:

Kostkas 5-1 Urnieta B

Trintxerpe 0-3 Euskalduna

Euskalduna B 2-5 Lengokoak

SENIOR MAILAKO NESKAK

Bigarren jardunaldia:

Urnieta-Lagun Onak

Larunbata, 18:00.

Pala eta paleta partidak

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Urriak 6, ostirala

20:00 Urnieta.

Pala motza, seniorrak:

Urnieta 1- Alzatarra 2

Urnieta 2- Oiangu 2

Paleta goma:

Urnieta 2- Zumaia

Saski partidak

AURREKO JARDUNALDIA:

Ganbara SenM 75-70 Hernani

Ganbara KadM 43-36 Hernani

Ganbara InfM 20-62 Easo

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Añorga-Ganbara Seniorrak

Larunbata, 7. 18:00. Benta Berri.

Ganbara Kadeteak-Deba

Larunbata, 7. 09:00. Andoain.

BKL-Ganbara infantilak

Larunbata, 7. 10:55. Beasain.

Eskalada

Zanpatuzekin Aritxulegira.

Urriak 7, larunbata

09:00 San Juan plaza.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-IRURTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Baltzer Eskutia

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZER MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerriri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

ANDOAINGO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZER MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urrieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 6TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Jaiak

Urrieta, Xoxoka

- **Urriak 6, 7 eta 8:** Egitarau osoa 3. orrialdean ikusgai.

Zinema

Andoain, Bastero

- **Operacion Concha**
Larunbata, 7. 19:30, 22:00.
Igandea, 8. 19:30.
Astlehena, 9. 22:00.
- **Golazen**, telesailaren estreinaldiko zinema saioa
Asteazkena, 11. 18:30.
Osteguna, 12. 17:00.
- **El amante doble**
Urriak 14, 15 eta 16.
- **Handia**
Urriak 21, 22 eta 23.

Farmaziak

Andoain

- **Gorospa:** Rikardo Arregi, 12. Gaez: Etxebeste (Hernani).

Urrieta

- **Castilla-Larburu** (Hernani): Urbietako kalea, 7. Gaez: Etxebeste (Hernani). Urriak 7 eta 8.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- **“Palimpsesto”**, hainbat artisten eskutik. Irekiera ekitaldia: Urriak 6, ostirala. 19:00. Azken eguna: Azaroak 11.

Kale giroan

Andoain

- **Hortzmuga:** “Femmes”, antzerkia. 12:30 Bastero plazatik Santa Krutz zubiraino. Urriak 7, larunbata.

Jaialdiak

Andoain, Gaztetxea

- **Sare** ekimenaren eskutik.
18:00 Porrotx (3 euro).
19:00 Pintxo-pote berezia.
23:00 Sutagar (8 euro).
Sarrerak salgai:
Ernaitza, Xauxar.
01:00 DJ Mai.
Urriak 7, larunbata.

Urrieta

- **Pausoka** elkarteak antolatutako jaiak, Egape ikastolako jolastokian. Egun osoko ospakizuna. Urriak 14, larunbata.

Ikuskizuna

Urrieta

- **La Liquida: “Hambre”**. Antzerkia, musika eta gastronomia uztartzen dituen ikuskizuna da. 20:00 Sarobe. Urriak 8, igandea.

Andoain

- **Ene Kantak: “Astonauta”**. 17:00 Bastero. Urriak 8, igandea.

Ikastaroak

Andoain

- **Jabekuntza eskola** Urigainen. Ikastaro guztiak dohainik. Izen-ematea Urigainen: sbarrenetxea@andoain.eus 943 300 830.
Luzapena: 397.
- **Batukada feminista** Urria-Abendua. 19:00-20:30.
- **Rap** Urria-Abendua. 17:00-19:00.
- **Teoria feminista** Urria-Abendua. 2 orduko 10 saio.
- **Adimen emozionala** Urria-Azaroa. 18:00-19:30.
- **Autodefentsa** Azaroak 18, larunbata. 10:00-14:00 / 16:00-20:00.
- **Elkargune kultur anitza** Urria-Abendua. 10:00-12:30.
- **Galdaragintza** ikastaroa La Salle Berrozpe ikastetxean, 640 ordukoa, langabetuei zuzenduta dago. Izen-ematea: 943 590 557.

Urrieta

- **Lekaioko** ikastaroetan izena emateko epea ostiralera arte luzatu da. Helduak: Eskulanak, marrazketa, zur taila,... Haur eta gazteak: Argazkigintza, eskulanak,... Izen-ematea, azken eguna: Urriak 6, ostirala.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Unai Zatarainek urriaren 13an urteak beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik. Oinatz semea, Unax eta Aneri iloben partetik. Ondo pasa!
ANDOAIN



ZORION AGURRAK AIURRIK:
diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Whatsappa:
619 163 537

MERKATUA

LANA. Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresatarako klaseak. 665 71 98 27. 943 008 059.

Bizikidetzarako espiritualitatea

Elkarbizi taldeak espiritualitatearen inguruko hainbat ikuspegi azalduko ditu Joseba Arregi, Enrique Ayerbe, Carlos Garcia de Andoin eta Joxemari Larramendiren bitartez: “Berradiskidetzea lortzeari begira dagoen elkartzitza bilatzeak estrategia politikoetatik aparte dagoen zerbait dela iruditzen

zaigu. Horregatik, proposatutako gaia sakontasunez aztertutako nahiko genuke”.

Izen-ematea:

ganboiturri@gmail.com

Azken eguna:

Urriak 5, osteguna:

Jarduera:

11:00 Urigain.

Urriak 7, larunbata

Modan da Euskara, asteburuko hitzorduak



Urriak 6, ostirala

- 17:00** Dokumentala Basteron: The true cost/benetako kostuak.
- 19:00** Solasaldia Basteron: “Josi eta atondu”. Aurkezlea, Urtzi Azpiroz. Hizlariak: Igor Uria Cristobal Balenciaga museoko kidea, Irati Guarretxena diseinatzailea eta Maddalen Marzol lurrinetan aditua.

Urriak 7, larunbata

- 11:00** Mahai-inguruak: “Moda astintzen”. Moderatzailea: Maider Gorostegi. Hizlariak: Igor Uria Cristobal Balenciaga museoko kidea, Jokin Aierregarai

komunikatzailea eta Urtzi Azpiroz diseinatzailea.

- 13:00** Kale antzerkia Bastero eta Santa Kruz bitartean: Femmes.
- 17:00** Denda eta postuen irekiera, Gau Txuriaren hasiera. Kale animazioa Santa Kruz zubian, Basteron eta Juanita Alkain plazan.
- 19:00** Modeus pintxo lehiaketako sari banaketa, Juanita Alkain plazan.
- 22:00** Mikel Urdangarin eta Esti Sistiagaren kontzertua, Juanita Alkain plazan.
- 00:00** Gau txuriaren bukaera dendetan eta karpan.

Juanjo MARZOL ERASO
Irailaren 24an hil zen, 58 urte zituela.

Bizitza burra atzean pasa zuen, tabernara inguratzen zen edozeini egunerokoa alaitzen. Eskerririk asko orain maitasun hori guztia bueltan sentiarazteagatik.

ETXEOAK

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: URRIAK 11, ASTEAZKENA